




ZORTZI MILIOI EUROREN BANAKETA POLITIKOA

ZEIN HEDABIDE GIZENTZEN DITU JAURLARITZAREN PUBLIZITATEAK?

Zortzi milioi euro banatu zituen iaz Eusko Jaurlaritzak hedabideen artean publizitate instituzional eta edukien babesletza kontzeptuetan. Ondorio ugari atera daiteke. Bat: diru publikoz gehien subentzionatutako hedabideak Vocento taldekoak dira eta urtero milioika euro ematen dizkiete. Bi: banaketa interes politikoen arabera da, hedabideen zabalkundea hartuz gero irizpide gisa boteretik gertu dauden zenbait hedabide-talde puztuta daude –eta beste batzuek gehiago merezi dute–. Hiru: euskarazko hedabideei euskara sustatzeagatik eman zieten diru-laguntza guztia baino baino diru gehiago banatu zien Jaurlaritzak nagusiki gaztelaniaz diren hedabideei publizitate bidez. Lau: ARGIA berriz ere bazterrean utzi zuten. Eta bost: eskerrak komunitateak eusten dion kazetaritza independenteari, horrelako *pastelak* mahai gainean jartzen jarraitzeko.

Axier Lopez
@axierL

Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaitz



Erakunde publikoek urtero milioiak banatzen dituzte hedabideen artean. Batetik, instituzioek bere kanpainak hedabideetan iragartzeko publizitate kontratuak egiten dituzte: jo dezagun, errenta aitorpenaren, gripearen aurkako txertaketaren, turismoaren sustapenaren edo sexu erasoen aurkako kanpainak zabaltzeko. Bestetik, instituzioek egoki irizten dioten hedabideetako zenbait proiektu babesletza bidez sustatzen dute: *Diario Vascoren* "San Sebastian Gastronomika" kongresua kasu. Banaketa horretan, Eusko Jaurlaritzak 10.991 euro eman zizkion ARGIAri 2017an. Konparaziorako, EITB hedabide publikoaren ostean, *El Correo* eman zion diru gehien: 1.253.000 euro eta talde bereko *El Diario Vascori* 963.751. Grafika nagusian daude datuak hedabideez hedabide.

Eusko Jaurlaritzak emandako datuak aurkituko ditu irakurleak erreportaje honetan. Bi iturri erabili ditugu horretarako. Batetik, *Irekia* webguneak, Eusko Jaurlaritzaren gardentasuna eta herri-tarren parte-hartzerako atariak, eskainitako datuak eta bestetik, *Kontratazio Publikoak Euskadin* plataforman agertzen direnak. Datu publikoak badira ere, zehatza izatea ez da lan erraza. Kontratu batzuk iturri batean azaltzen dira, beste batzuk bestean eta bietan errepikatzen dira beste batzuk.

Vocento-Cope (bi taldeek akordio estrategikoa egin zuten 2012an) da diru publiko gehien jaso zuena 2017an: 2.300.000 eurotik gora. Ondoren, EITB talde publikoko hedabideak izan ziren: 2.000.000. Noticias taldea osatzen duten *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de Alava*, Onda Vasca eta Herri Irratia hedabideek orotara 1.200.000 eurotik gora jaso zuten. Laugarren, Prisa taldea: *El País*, Cadena Ser, Los 40 eta Cadena Dial. Hauek 846.160 euro jaso zituzten. Gara egunkariak 417.313 euro jaso zituen, *Berriak* 345.838. Taldekako grafikan ikusgai daude banaketaren zenbakiak.

Eusko Jaurlaritzak, EITB talde publiko elebiduna kenduta, 2017an publizitate eta babesletzara bideratutako diruaren %92 gaztelaniaz edo nagusiki gaztelaniaz aritzen diren hedabideei eman zien: 5.749.974 euro. Euskarazkoentzat gainerako %8 bideratu zituen: 496.819. Euskal hedabideen multzoan *Berria* euskarazko egunkari nazional bakarrak

» Euskarazko hedabideek diru-laguntzak azken zentimoraino justifikatu behar izateaz gain, subentzionatuaren zama faltsua daramate gainean, gaztelaniazkoek publizitate bidez diru publiko gehiago jasotzen duten bitartean

jaso zituen kopuru horren bi herenak. Tokikomeko hedabideek 46.447 euro jaso zituzten. Agerikoa da Jaurlaritzaren apustua gaztelaniazko hedabideen aldekoa dela. Konparaziorako, euskarazko hedabide guztiek batera adina diru jaso zuen *Deiak* bakarrik, baita Cadena Serrek ere. *El Diario Vascok* euskarazko denek batuta halako bi, eta talde bereko *El Correo* ia halako hiru.

Irizpide politikoaren arabera banaketa

1993an gai honi buruz *Eginek* argitaratu zuen *Evidencias de la sinrazón* erreportajea honela hasten zen (euskaratuta): "Nahiz eta erakunde publikoek erretrika bidez justifikaezina dena estali nahi izan, nahiz eta Euskal Herriko gainontzeko hedabideak isileko akordioaren parte izan, organismo publiko baskongadoen partetik ageriko itotze ekonomikoa sufritzen ari da *Egin*. Nahiz eta Gasteizko Gobernuak bozeramaileek esan boikota egunkariaren arduradunen buruan baino ez dagoela, sinesgarriagoa da Atutxaren Departamentuko prentsa arduradunak emandako azalpen zintzoa: 'Ez dugu publizitaterik jartzen *Egine*n, ez dugulako nahi'". ARGIA ere antzekoak entzuna da. Azkena, ondorengo esan zioten: "Denok hartzen ditugu erabaki politikoak, bai guk, baita zuek ere. Egoera honen errua ez dago alde bakarrean eta orduan, bakoitzak eman beharko ditu pausoak egoera hau gainditzeko".

Gure erantzuna argia izan zen: "Guk ez dugu erruaren kontzeptua erabiltzen. Errespetuzko harremana eskatzen dugu. Gure aldizkariko espazioa ondo balio du

publizitatearen prezioak. Eta eskatzen dugun errespetua da, ARGIA-n publizitate publikoa jartzeagatik, ez dadila inor saiatu gure ildo editoriala aldatzen".

Madrilen egoitza duen *Oficina de Justificación de la Difusión* enpresak -OJD gisa ezaguna- ematen dituen datuen arabera, 2010etik 2017ra *El Diario Vascoren* ale salmentak etengabe egin du behera. 2010ean egunero 71.948 ale saltzen zituen batz bestea, eta 2017an 48.949, aipatu iturriaren arabera. Diru publikoa banatzeko irizpidez galdetuta, hedabideen zabalkundea da agintarien ohiko erantzuna. Baina datuak ez datoz bat, ez Eusko Jaurlaritzaren publizitate eta babesletza banaketan, ezta Gipuzkoa edo Arabako Aldundienean ere. Horren froga nagusia da Noticias taldeko hedabideek orohar jasotzen duten kopurua. Adibidez, *Noticias de Gipuzkoak* (NG) 265.257 euro jaso zituen eta *El Diario Vascok* (DV) ia lau aldiz gehiago. Baina, CIES enpresako 2017ko datuen arabera, DVren irakurleak *Noticias*-enak baino 10 aldiz gehiago dira. Are agerikoa da konparaketa ARGIArekin eginez gero: CIESeko datuen arabera, EAEn ARGIAk NGk baino irakurle kopuru bikoitza badu ere, ARGIAri emandakoa baino 25 aldiz diru gehiago eman zion Jaurlaritzak *Noticias de Gipuzkoa* egunkariari.

Irratien esparruan ere, Cadena 100ek 2017an batez beste 95.000 entzule izan zituela kalkulatu zuen CIESek, eta 24.000 euro jaso zituen. Iturri beraren arabera, Onda Vasca 35.000 lagunek entzuten zuten, baina, halere, Onda Vasca 200.000 euro publiko eman zizkion Jaurlaritzak. Info7 irratiari buruzko datuak ez daude eskuragarri, baina 248 euro jaso zituen iaz. Beraz, jasotako dirua entzule kopuruaren arabera baltz, Info7k 43 entzule izan beharko zitzutkeen 2017an. Eta hori ez da horrela.

EAEn 52.000 irakurle zituen ARGIAk 2018ko hasieran, CIESen arabera. ARGIAk baino diru gehiago jaso du ondorengo aldizkariak: *Entre Mayores*, *El Karma*, *La ría del Ocio* edota *Dato Económico*.

» *Deiak* bakarrik euskarazko hedabide guztiak batuta adina publizitate jaso zuen

mico, baita Alemaniako *Der Spiegel*ek ere, kasik bikoitza.


Gaztelaniazko hedabideak dira "hedabide subentzionatuak"

Euskarazko hedabideei noiz edo noiz maltzurki egotzi izan zaie "diru publikoz puztuak" izatea; euskararen normalizazioaren bidean hedabideek euskara sustatzeko betetzen duten funtzio publikoaren ordainetan instituzioetatik jasotzen duten dirua dela-eta. Zenbakiak ordea, kontrakoa diote: 2017an Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideei emandako diru-laguntza 4.875.000 eurokoa izan zen. Horri gehitzen badiogu publizitate instituzionala argitaratzearen truke jaso zituzten 496.819 euroak emaitza, 5.371.819 eurokoa da. Gaztelaniazko hedabideei, aldiz, publizitate instituzional bidez eman zieten diru publikoa 5.749.974 eurokoa izan zen, eta horri gehitu behar zaio euskarazko diru-laguntzetatik, euskaraz artikulatu batzuk idazteagatik gaztelaniazko hedabide batzuek jasotzen duten diru kopuru altua. Eta joera bera errepikatzen denez EAEko hiru Aldundien publizitate banaketetan, aldea are handiagoa da. Beraz, hedabide guztiek jasotzen dute diru publikoa, baina euskarazkoek ia dena azken zentimoraino justifikatu beharraz gain, "subentzionatuak izatearen zama" faltua gainetik kendu behar dute. Aldiz, gaztelaniazko hedabideek orotara diru publiko gehiago jasotzeaz gain, boteretik gertuen dauden komunikabide hauen bideragarritasun ekonomikoaren sostengu nagusia dira instituzioak, eta horrek boterearekiko bezerokeria harremana ekar diezaike.

ARGIA berriz ere baztertua


Euskal Herriaren eta euskarazko kazetaritzaren 100 urteko historia bizia da-roa ARGIAk orri artean. Gure sustengu ekonomiko nagusia gure komunitatea osatzen duten milaka lagunak dira. Herriar horiek, ARGIAk bezalaxe, hemen ordaintzen dituzte zergak, baina Jaurlaritzaren publizitate banaketak diskriminatu egiten ditu. Jaurlaritzak publizitate eta babesletza gisa 2017an banatu zituen 8 milioiak, 25 sail eta azpi-sailetatik bideratu zituen. Bada, ARGIAko irakurleek hainbat sail eta azpi-sail publikotatik ez zuten batere informaziorik jaso, tartean hauek: Euskadiko Kirol Portuak, Euskal Trenbide Sarea, Ihobe,

PUBLIZITATEAREN BANAKETA HEDABIDEEN HIZKUNTZAREN ARABERA



EITB talde publikoa kanpoan utzita.

BANAKETA ENPRESA TALDEEN ARABERA



Ingurumen Saila, IVAP, Ogasuna, Osalan, SPRI, Turismo saila edota Uraren agentzia.

Publizitate publikoaren eta hedabideen arteko harremanaren oinarria informatzea behar luke izan. Erakunde publikoek hedabideen espazioa, lana, azpiegitura, banaketa-sistema eta sinesgarritasuna baliatzen dituzte ahalik eta herritar gehienek izan dezaten guztien diruarekin ordaindutako ekimen publikoen berri. Diru publikoz ordaindutako zerbitzu publikoa da informatzea, baina oso tentuz kudeatu eta zaindu behar da, botereak baldintzatutako hedabideen historia luzea bezain iluna baita. Horregatik, publizitate instituzionalean irizpide argiak, parekidetasuna eta gardentasuna ezinbesteko oinarriak dira diru publikoaren erabilera jokoan da goenean.

Erakunde publikoekin harremanak izateak, izan diru-laguntza, publizitate ala babesletza bidez, ez du ekarri behar prentsa eta iritzi askatasuna baldintzatzea, horrek herritarren informazio eskubidea murrizuko bailuke. Horregatik da kezagarria, publizitate eta babesle-

TURISMOA BERDINTASUNAREN GAINETIK?

Zeinek du garrantzi handiagoa Eusko Jaurlaritzaren politike-tan? Har ditzagun azken urteotan zeresana eman duten bi gai: Emakumeen berdintasuna eta turismoaren sustapena. "Berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituen" Jaurlaritzaren erakundea da Emakunde. Emakundek 75.000 euro gastatu zituen publizitatean 2017an, kanpaina baka-rrean: Martxoak 8. Jaurlaritzaren Turismo sailak berriz 682.000 euro erabili zituen publizitatetarako. Ondorengo hedabideek jaso zuten diruaren zatirik handiena: Telecinco, Cadena Ser, Antena 3, ETB 2, La Sexta, eta Radio Euskadi, hurrenez hurren.

tza publikoen banaketa ez bidezkoaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak hedabideen ekosistema baldintzatzea.

Oraindik bide luzea dago egiteko publizitatearen banaketari lotutako gardentasunean eta irizpideen zehaztasunean. Baina erraz konpondu daitezkeen gaiak dira, erakunde publikoen aldetik borondatea baldin badago eta hedabideok diru publikoaren erabileraz gertuko jarraipena eskaintzen badiegu herri-tarrei.

Iritzi aniztasuna sustatu ala status quoa betikotu

Ondorengo atala, joan den otsailean Gipuzkoako Aldundiaren publizitate banaketari buruz idatzi genuen errepor-tajearen argitaratu genuen. Ia urtebeteren ostean, galderek mahai gainean jarrai-tzen dute.

Hedabide askoren biziraupenerako ezinbesteko diru-sarrera ekonomikoa da publizitatea, eta gehien bat, babes-letza eta publizitate publikoa. Edozein demokraziatan oso tentuz kontrolatu beharreko eremua da botere politikoa-ren eta enpresa pribatuen arteko ha-



Lezoko Unibertsitateko Udala

Gurutze Santuaren Plaza, 1.
20100 Lezo | Tel.: 943 52 46 50
info@lezo.eus | lezo.eus

Abenduaren 3:
euskararen **ALDE;**
4tik aurrera:
euskaraz **NATURAL**



rreman ekonomikoa. Eta informazio askatasuna bermatu behar duten hedabideen kasuan, are gehiago. Kazetaritza kazetaritza izan dadin ezinbesteko duen independentzia –ekonomiko eta politikoa– ezbaian jar dezakeen faktorea baita.

“Dirua modu arbitrarioan banatzen baduzu borondateak erosten ari zara, informazio eskubideari kalte egiten ari zara. Adierazpen askatasuna nabarmen kaltetzen da, prentsa askatasunarekin lotuta ez badoa; eta prentsa askatasuna ezin da guztiz garatu joko arau ekita-tiborik gabe”. Eldiario.es hedabideko zuzendari Ignacio Escolar Espainiako Estatuko panorama mediatikoaz mintzo da Amnesty Internationalek antolatutako jardunaldi batzuetan. “Prentsa plurala daukagu, beren iritzi eta ikuspegiak partekatzen dituen prentsa aurki dezakete ia espainiar guztiek; baina ez daukaguna da joko zelai justurik prentsarentzat”, zioen aktore politikoa eta ekonomikoek informazioaren gainean duten kontrolari erreferentzia eginez. Zehazki, esaldi horrekin publizitate instituzionalari egiten zion

erreferentzia, irizpide arbitrario eta opakuekin egiten den diru publikoaren banaketari.

Irismena kalkulatzeko arazoak albo batera utzi gabe, irismena banaketarako irizpide nagusi bilakatzea bide eraginkorra da hedabideen status quoa betikotzeko, baita gaztelaniaren hegemonia ere, euskararen kaltetan. Sare sozialetan hainbat hedabide egiten duten lana ez kontuan hartuz, hainbat medio handiri egiten diete mesede, eta beste batzuei kalte.

Diru publikoa jasotzeko, maila berean izan behar al dira multinazionalen jabetza duten hedabideak (Vocentoren kasuan adibidez, BBVA bankua da akziodun nagusia) eta jabetza langileena den komunikabideak, ARGIA kasu? Lehia desorekatua da berez, banketxe handi baten babesa daukan hedabidearen eta bere baliabideekin irauten duenaren artean. Lehenbizikoak bermatuta dauka egunero kaleratzea, inbertsoreek haien interesentzat hedabide hori jendartean edukitzea komenigarri jotzen baldin badute, nahiz eta dirua galdu. Bigarrenak aldiz, publi-

ETB1 127.000 € VS.
ETB2 760.000 €

Nagusiki gaztelaniaz aritzen diren hedabideak saritzen ditu Jaurlaritzaren publizitate banaketa eredu honek. Eta arrakala hori errepikatzen da baita Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen hedabide publikoetan ere. Euskarazko telebista kate publiko bakarrari bideratutako dirua sei aldiz txikiagoa izan zen gaztelaniazko kate ahizpak jaso zuena baino. Agintariek aspaldi lurperatu zuten 1982an Euskal Telebista sortu izanaren arrazoi nagusia: euskararen normalizazioa. Hauxe da beste lagin bat.

katzen duen zenbaki bakoitzarentzat finantzazioa lortu behar du. Erakundeek pluraltasun informatiboa babestu behar badute, zer zentzu dauka gaur egungo publizitate-politikak? ■

OTXANDIO 1936 OROITZAPEN JARIOA

“Hamarkadak Euskal Herriko lehen bonbardaketa jasan eta orduko malkoak irri bihurtu nahian”



emun

EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | BILBO

www.emun.eus